

**M**IRAKI ERASOTZEKO ASMOA. AEBek Bagdadek erakutsitako jarrerari «trikimailu» eta oraingo desarmeari «ispilatze» iritzi zieten; Frantziak, Errusiak eta Alemaniak, berriz, ikuskaketekin segitzeko beharra eta gerrarako motiborik eza berretsi zuten atzo.

# Suntsipen handiko armen frogarik ez dagoela esan dute ikuskatzaile buruek

NBEko Segurtasun Kontseiluan aurkeztutako txostenak erakundearen banaketa agerian utzi du berriro

Juanma Sarasola | DONOSTIA

NBE Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluan bilkura arrunt garrantzitsua egin zuten atzo New Yorken; izan ere, Iraken ustezko suntsipen handiko armak eta ikuskatzaileen egitekoaren luzatzea izan zituzten hizpide. NBEko ikuskatzaile buruek aditzera eman zuten, ez dago frogarik erakusteko Bagdadek suntsipen handiko armak dituela. UNMOVIC NBEko Egiaztatze, Ikuskatze eta Kontrolerako Batzordeko buru Hans Blixen hitzetan, Iraken desarmea modu bizkorrean egin daiteke, baldin eta Bagdadek «baldintzarik gabeko elkarlan aktiboa» erakusten badu. Ikuskatzaileen txosten berriak eragindako erreakzioak Segurtasun Kontseiluan, azken aldia dagoen zatiketa agerian utzi zuten berriz.

Blixek auzitan jarri zituen AEB Ameriketako Estatu Batuetako Estatu idazkari Colin Powellk otsailaren 5ean aurkeztu zituen «froga» batzuk —satelite bidezko bi irudi, non irakiarrek arma debekatuak lekuz aldatzen ari direla dirudien—; «errutinazko ekintzak» edota arma konbentzionalen garraioak izan zitezkeela esanez.

IAEA Energia Atomikoaren Nazioarte Agentziako zuzendari Mohamed El Baradeik, bere aldetik, zera adierazi zuen: «Irak arma atomikoak garatzen ari dela dioten frogarik ez dago». Zehaztu zuenez, oraindik erabat ikertu gabeko zenbait arlo aztertzen segitu behar dute.

Segurtasun Kontseiluaren bileraren bezperan Bagdadek agiri gehiago eman ziela adierazi zuen atzo Blixek; haatik, ez dute denbora aski izan haiek aztertzeko. Misilei dagokienez, esan zuen *Al Samoud* misilaren bi mota topatu dituztela, NBEk ezarri 150 kilometroko irismenaren muga gainditzen dutenak. Irakek hainbat motor inportatuak zituen misilotan erabiltzeko. «Bagdadek lehen zituen 1.000 tona gai kimiko aurkitu gabe daude oraindik, baina



BEBETO MATTHEWS / AP

**IKUSKATZAILE BURUAK.** UNMOVICeko ikuskatzaileburu Hans Blix, eskuinean, eta IAEAkoa, Mohamed El Baradei, beren oharrak irakurtzen, atzo New Yorken, NBEren Segurtasun Kontseiluko bileraren hasieran.

ANALISIA

■ Jose Mari Pastor

## Perleren perla

Duela urtebete, 2002ko otsailean, Donald Rumsfelden aholkulari nagusi Richard Perlek ez zuen errepararik izan Iraken auzian Ameriketako Estatu Batuen benetako asmoa zein zen argitzeko. Perle Munichen zen orduan, Segurtasun Konferentzian nazioarteko krisia aztertzeke, eta zera adierazi zion *Financial Times* egunkariaren bertsio alemaniarrari: «Saddam Husseinek ezin du ezer ere egin, Iraketik arriskurik etorriko ez dela sinetsaraziko digunik».

Urtebete pasa da geroztik, eta orduan bezala orain ere galdera hau egin lekiok Perleri: zergatik, bada, hainbeste koplara arma ikuskatzaileekin? Azken batean, argi dago AEBei benetan ez diela ardura Irakek armarik duen edo ez jakiteak. Armen gaia aitzakia da alde aurretik erabaki duten jokaera nazioarteko komunitatearen aurrean justifikatzeko. Washington itxura egiten ari da, besterik ez. Perleren hitzen moduko jarrerak salatzen dute.

Arma ikuskatzaileek atzo azaldutako txostenak Iraken kontrako gerrararen alde eta kontra daudenen arteko diferentziak areagotu baizik ez ditu egin, nor bere irakurketa egiteko mo-

dukua izan baita. Hans Blixek ez du azkeneko epailea izan nahi izan, eta bere *bai, baina* horrek krisia handitu du. Hala ere, kontu bat argi utzi dute ikuskatzaileek: ezustean egindako 400 miaketatik gora horietan debekatutako armen arrastorik ez dutela aurkitu. Denbora gehiago eskatu dute lanean segitzeko.

AEBak, hala ere, presatuak dira, eta Nazio Batuek presionatzen ari dira, nazioarteko erakundeak Iraken kontrako erasoari baiezkotzea eman diezaioten. Baina hori gabe ere kanpaina militarra egiteko prest dago Bush presidentea. Gerra sostengatu ezean NBE «garrantzirik gabeko» bihurtuko dela esan zuen Bushek ostegunean, «eztabaida leku hutsa».

NBERi bera ari zaiola garrantzia kentzen gogorazi beharko litzaioke AEBetako lehendakariari. Batez ere beste estatuen iritziak mespretxatzen dituenen, horiek bere gobernuaren interes eta tesiekin bat ez datozenean. Eta zera ere iradokitzen duenean: NBEko arma ikuskatzaileen ezein txostenek Iraketik arriskurik ez dela etorriko sinetsaraziko ez diola. Perlek duela urtebete esan zuen bezalaxe.

gaiok oraindik existitzen direla ziurtatzeko arrazoirik ez dago. Ez dagokie ikuskatzaileei horiek atzematea; Irakek deklaratu beharko ditu».

Gune eta lantokietara ikuskatzaileek izan duten sarbideaz mintzo, ikuskatzaile buruak aipatu zuten ez dutela arazorik izan orain arte, ezta presidentearen jauregi zein etxebizitza pribatuetara sartzeko ere. Gainera, nabarmendu zuenez, tokian tokiko ikuskaketak egin aurretik irakiarrek horiek gertatzera zihozela zekitenik ez dute ikusi ikuskatzaileek. Iraken barrena 400 bat ikuskaketa egin dituzte.

Blixen ahotan, Irakek lehen zituen arma eta gai debekatu ugari zerrendatzeke daude. «Baldin badituzte suntsituak izateko aurkeztu beharko dituzte. Ez baldin badituzte, suntsitu egin zituztela frogatzen duen informazio sinesgarria aurkeztu beharko dute».

### Desarmea, «ispilatzea»

Powell, aldiz, Irakek desarmea eta ikuskaketa alorrean eginiko aurrerapenei «nazioarteko komunitatearekin jolasteko trikimailu» iritzi zien atzo. «Ez ditugu ikuskaketa gehiago behar; Iraken aldetik berehalako elkarlan oso eta aktiboa behar dugu. Haren desarmea behar dugu», nabarmendu zuen. «Ondorio serioetan pentsatzeko tenorea» dela gaineratu zuen. Etze Zuri-ko eledun Ari Fleischeren esanetan, «Iraken desarmea ispilatze» bat dela erakusten du ikuskatzaileen txostenak.

Erresuma Batuko Atzerri ministro Jack Straw, bere aldetik, honako eleak ahoratu zituen: «Uste dut oraindik aterabide baketsu bat izan dezakeela krisiak, baina horrek Husseinen aldetik aldaketa nabarmen eta berehalakoa eskatuko du. Segurtasun Kontseilua tiranoaren aurrean tinko mantentzen bada soilik lortuko dugu hori».

Errusiaren aburuz, ikuskakete segitu behar dute, eta soilik alternatiba guztiak ahitzean erabil daiteke indarra; «ez gara puntu horretara iritsi».